

Goi-mailako joskintzako tekniken ikastaroen egitaraua

2026ko egutegia

Cristóbal Balenciaga Museoak Cristóbal Balenciaga jostunaren ondarea kontserbatzea, ikertzea eta zabaltzea du xede eta ardatz. Hori dela-eta, museoak Balenciagaren lanarekin lotutako ezagutza eta prozedura teknikoak transmititzeko bideak aztertzen dihardu duela zenbait urtetik hona. Hala, hezkuntza-programa bat sustatzen du, zenbait jarduera-ildotan oinarritua, bi helburu nagusirekin: batetik, getariar jostunaren lanaren alderdi immaterialaren garrantzia azpimarratzea, eta, bestetik, ezagutza hori modaren profesionalen belaunaldi berrien esku jartzea.

Ikastaro horiek, trinkoak eta praktikoak, museoan bertan egiten dira, eta Balenciagaren unibertsoan erabat murgiltzeko aukera ematen diete parte-hartzaileei. Eta, tresna digitalek online-prestakuntzarako eskaintzen dituzten formula berriak.

Programak hiru ibilbide planteatzen ditu: jantzigintzako joskintzako teknikak, fantasiako joskintza eta brodatua. Eta maila desberdinak, proposatutako gaitasun teknikoak pixkanaka eskuratzeko aukera izateko. Guztira, 256 bat orduko dedikazioarekin.

Ikastaroen egitaraua urtero eskaintzen da, ikasturte akademikoarekin batera. Horrela, norberaren interesen, denboraren eta aukeren arabera egokitutako ibilbideak presta daitezke.

JOSKINTZA

Hastapen-maila, erdi-maila eta maila aurreratua

Eguneko jantziak (jaka-trajeak, batez ere) egiteko teknikak. Arreta berezia jarriko da artilezko ehunen tratamenduan eta papar-hegalak, lepoak, botoi-zuloak, poltsikoak eta mahukak eskuz egiteko zereginetan.

FANTASIA

Hastapen-maila, erdi-maila eta maila aurreratua

Eguneko jantziak (koktel-jantziak eta ezkongai-jantziak) egiteko teknikak. Arreta berezia jarriko da material jakin batzuetan (zeta, tafeta, parpaila), barnealdeko egituretan (kortseleteak) eta bestelako teknika batzuetan (izurrak, organtzak, guatinak eta itxigailuak).

BRODATZEA

Hastapen-maila 1A eta 1B (inplementazio berria)

Goi-mailako joskintzako teknika espezializatuak, Lunéville metodoaren bidez eskuz brodatzen ikasteko.

Joskintza	Datak	Izen-ematea	Iraupena	Modalitatea	Prezioa
1. Hastapen-maila	Irailak 11 Irailak 13	Ekainak 01 Ekainak 15	20 ordu	Presentziala	290€
2. Erdi-maila 2A	Urtarrilak 12 Otsailak 01	2025 Aben 01 2025 Aben 15	30 ordu	Online	340€
2. Erdi-maila 2B	Otsailak 09 Martxoak 01	2025 Aben 01 2025 Aben 15	30 ordu	Online	340€
3. Maila aurreratua	Ekainak 22 Ekainak 26	Martxoak 15 Martxoak 30	35 ordu	Presentziala	475€

Fantasia	Datak	Izen-ematea	Iraupena	Modalitatea	Prezioa
1. Hastapen-maila	Urriak 02 Urriak 04	Ekainak 16 Ekainak 30	20 ordu	Presentziala	290€
2. Erdi-maila	Martxoak 09 Martxoak 29	Urtarrilak 01 Urtarrilak 15	30 ordu	Online	340€
3. Maila aurreratua	Ekainak 29 Uztailak 03	Apirilak 01 Apirilak 15	35 ordu	Presentziala	475€

Brodatzea	Datak	Izen-ematea	Iraupena	Modalitatea	Prezioa
1. Hastapen-maila 1A	Maiatzak 14 Maiatzak 17	Otsailak 15 Martxoak 01	28 ordu	Presentziala	415€
1. Hastapen-maila 1B	Maiatzak 19 Maiatzak 22	Otsailak 15 Martxoak 01	28 ordu	Presentziala	415€

Javier Martín	Javier Martín museoko ohiko kolaboratzailea arituko da joskintza-ikastaro hauetan irakasle. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan graduatu zen, 1991n, Goi Mailako Moda Diseinatzaile gisa, eta bere prestakuntza-urteetan Carmen eta Emilia Carriches ezagutu zituen, EISA Madrid etxeko langileak eta Felisa Irigoyen tailerreko buru izandakoaren lehen jostunak. Haiengandik ikasi zituen Cristóbal Balenciagaren joskintzako eta bolumenak eraikitzeko teknika espezifikoak.
Elisabeth Gasbarre	Elisabeth Gasbarre, Parisko École Lesagen ikasia da, eta Cécile Henri Atelier lantegian aritua da, Dior, Chanel eta Azzaro moda-etxeen bildumetarako sorkuntzak egiten. Gainera, hainbat herrialdetako diseinatzaile eta moda-enprekin kolaboratu du: Hermès, Chafor, Alexis Mabille, Impasse 13, Didit Hediprasetyo eta Francesca Fossati. Irakasle gisa, eskolak ematen ditu Lyongo bere jostundegian, Frantzia, nahiz mundu osoko moda-zentroetan.

Museoak beretzat gordetzen du eskainitako ikastaroen saioak egunez aldatzeko eskubidea, baita, ezinbestekoa izanez gero, programa bera osorik edo zati batean bertan behera uztekoa ere.

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

B



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



OPAIN
GIPUZKOA

